

**GRAMATIKAKO ZERTZELADA BATZUK  
FRAI BARTOLOMERENGAN**

Frai Bartolome Santa Teresaren idazlan osoak argitara emateko azken ukituak egiten ari garenez gero, ia ezin agortuzko altxorra dugula ohartu gara. Horregatik *Karmel* aldizkariaren irakurle askok -batez ere irakasleek, idazle klasikoen ikertzaileek eta bizkaiera sakondu nahi dutenek- eskertuko dituztelakoan gaude gramatikako zertzelada hauek.

Aurrekoan idatziriko harian aurrera eginez, gaurkoan, denborazko perpausak, ondorio-perpausak, kontzesiboak eta erlatibozkoak jarriko ditugu:

### **1. Denborazkoak**

Denborazko perpausak, berezko denez, era askotara adierazten ditu. Aditz jokatuari **-nian** inesibozko morfema erantsiz sortzen dena da ohikoena, baina horrek ez du ezer azaldu beharrik, guztiz ezaguna baita.

Jakina, denborak eta lekuak gramatikan lotura estua baitute, morfologiaren atalean, inesibo kasuan sartuko lirateke aditz

trinkoaz nahiz laguntzaileaz eraikitzen dituen denborazko forma batzuk. Aditz laguntzaileekin, subjuntibo forma darabil oraindik gertatu ez dena, baina gero gerta daitekeena adierazteko; forma aldetik, berriz, bizkaieraz ohikoa den ..**daitenean** erakoak erabili beharrean, ..**dedinian** erakoak erabiliko ditu; aditz iragankorretan, berriz, **daianian / daizanian**:

*¿Nos aseco ete da codicijosua diruz? Ill **dedinian** (Icas.II, 250).*

*Baina comulguetara orduco dan leguez pecatubagaz garbatutia, ta al **dedinian** compesetia, au gaiti imini dot irugarren le cuban compesinoeco Sacramentuba (Icas.III, 184).*

*Baina bildurra jua **dedinian**, estualdija irago **dedinian**, ez dauquee conturic, Jaungoicuari, ta Santubai eguindaco promesaquin (Icas. I, 138).*

*Ta ill **nendinian**, juango nintzan zucen impenuco ondarretara betico ¡Oh, neure entzula onac! Au izan zaatequian zuben guztion, ta nire azquen penagarrija, ta bildurgarrija (Icas. III, 34).*

*Ta azqueneco egunian ostera gorputza viztu **dedinian**, bat eguingo dala arimia bere gorputzagaz (Icas. III, 49).*

*Ta esaten eveela: aguinduten dot, sein au errazoiaren usura eldu **dedinian**, esango deusadala sarritan, ta eguingo dodala aleguina, diabrubaganic, ta pecatubaganic alde eguin daguijan, ta orain aguindu daven guztiari, cobru emon daguijon (Icas. III, 77).*

*Onaco promesic gueijenac izaten dira gachac jo **daizanian**, estu estuban arin aringa, ta ondo pensau bagaric eguiten dirianac (Esk. 161).*

Morfologian, inesiboaren atalean sartzekoak dira **-en guztian** erakoak ere, hots, gaztelaniara "siempre que" itzultzen diren horietarikoak (beti inesibo singularrean, bizkaieraz ohi denez, eta ez pluralean):

*Edo beste baten: al daijcn **guztian**, esan dan piesta dantzara juateco, vorondate presta, ta gogua ezauberaz daucanac, ta juan ezin dalaco peniagaz gueratuten danac, ocasinoe atan sartutia consentiduten davenian, eguiten davela pecatu (Euscal-Errijetaco... 46).*

*Baita da eguiija, plazaco piestara, ta dantzara duazanac, (guztiz itsubac, eta gorrac, edo umiac ezbadira) ondo daquije-ela bigarren juate aldico: juaten dirian **guztian**, edo piestaruz, edo piestaan, edo piestia amaituta, edo obeto esateco, leleengoti azquenera luxuriya guztiaren testigu izatera duazana (Euscal-Errijetaco... 99-100).*

*ondo daquijeela, dinot, bai guizonac, ta bai andraac, bai mutilac, ta bai nescaac, duazan **guztian**, luxurijaren sutegui, ta ats ziquin au guztiau, ta gueijago icusico daveena, entzungo daveena, ta sentiduco daveena (Euscal-Errijetaco... 100).*

*Exodoco liburuban Espiritu Santubari entzuten deusadazan verba batzuc, iracurten ditudan **guztian**, neure entzula onac, icara eguiten deust vijotzac (Esk. 3).*

*Baina ez da, biar eragotzija eguiten dan **guztian**, pecatu mortala eguiten (Icas. I, 157). (ik. ... orr.).*

Aditz-izenetatik sortzen direnak, hots, **-tian** / **-racuan** ez ditugu aurkitu. Aditz jokatupei **-neco** erantsiz eraikitzen ditu beste batzuk:

*Buruco min bat **daneco**, edo beste naibague bat echian edo aciendaan datorreneco, Jangoicuari edo Santubai eiten jacuez promesac (Esk. 161).*

*Salomon gaiti esaten da, amaeca urte **citubaneco**, aita zala (Icas. I, 192).*

*Ta mendi soilian Ceruti bialduten deutsee janari gozua, gose **dirianeco** (Icas. I, 57).*

Baina zazpi urte **ditubeeneco**, gueijenian ta gueijenac eracusten davee ezauberia, bai gauza on batzubetaraco, bai eheco oneraco ta bai eureen paltaac ezcutetaco bere (Icas. I, 169).

Ceubec esaten dozu ceuben umiac gaiti, sei zazpi urte **ditubene-co** esanac eguiteco, eheco gauzai begiratuteco ta contu artuteco, acordu onecuaac diriala, ta nausi batec leeche eguiten daveela (Icas. I, 170).

Gauza onetan gurasuen eguin biarra da, zazpi urte **ditubene-co**, eracutsi dotrina santuba, edade atan izan leitequian onduen (Icas. I, 194).

Cain madaricatuba leguez, arimaco gurasuen descuido bat **icusi daijeeneco**, arin aringa, pozaca ta barreca duaz, aguiri dirianai contetara (Icas. I, 214).

Ez mundutarrac leguez, sacerdote baten palta bat **icusi edo entzun daguijeeneco**, barre, chistu, gueitu, zabaldu ta sacerdote guztiai ezarri (Icas. I, 215).

inoc gach bat **eguin daiguneco**, jaguiten da gueure vijotzetan aren contra suba, gorrotua ta venguetaco gurarija (Icas. I, 243-244).

¿Ceimbati opicijoco, alover ona irabazten daveela ta osasuna dauqueela, beti arlote ta beti requez, peseta bat **daveeneco**, jocuari emoten deutseela, ta emaztia ta umiac gosez ta biloxic dauqueezala? (Icas. II, 140).

Zazpi urte **ditubaneco** oratuten deutsa Jesusen Amodijo itsubac ta ixiuac Teresari bere vijotzian (Icas. II, 287).

Piestara duazanac, piestia erdiz erdi **daneco**, trago bat edanda dagoz, bai guizonezcuac ta bai emacumiac (Euscal-Errijetaco... 47).

Ondorengo adibide hauek pixka bat ezberdinak dira; izan ere, **-neco** amaieradun hauek ez dute menpeko perpausarik

markatzen; aitzitik, denborazko aditz-sintagmak izenlagun bihurturik daude:

*Alan ichi euscun Jesucristoc, arimia gaixotuten **daneco** osagarritzat, Compesinoeco Sacramentuba (Icas. III, 12).*

*Aita ordequen seinu **batiatuten daneco** eguinbiarrac dira. Lelengo: Aita, ta Ama besuetacoc esquini edo oprecidu biar deutsee seinu batiuan Jaungoicuari ta Eleisa Ama Santiari (Icas. III, 78).*

*¡Ai nire tristia! Dantzan **ibili nasaneco** demporia jua jat (Euscal-Errijetaco... 163).*

*Bere Parroquijan dauca, cristinau **eguin zaneco** arimiaren garbi lecuba (Icas. I, 182).*

Azkenez, **orduco** darabil denborazko perpausak adierazteko, bizkaieraz oso hartua dena. **Orduco** horrek, perpaus nagusiarekiko iragana nahiz segidako denbora adieraz dezake, testuinguruaren arabera. Oraingo bizkaieran ere hala da. Forma hauetan agertzen da Bartolomerengan: PARTIZIPIOA + ORDUCO / -TERA + ORDUCO. Ikus ditzagun guztietariko adibide batzuk:

*Pecatu ez dan moduban celan olgau leitequian **esatera orduco**, jaquin biar da: (...) (Euscal-Errijetaco... 27).*

*Dantza zaleen urtenerai edo argumentubai **erantzutera orduco**, pensau dot, erabagui biar ditudala cer dirian Erromedijac, Biguiraac ta Saraubac (Euscal-Errijetaco... 105).*

*Orduban itandu biar deutsa, albadai, dudia daucanac daquitjanari, juramentu **eguitera orduco** (Icas. I, 111).*

*(...) bestiac verba bat **esan orduco**, erremuscadiagaz atzera sartuten deutsala (Icas. II, 7).*

*Ascotan, gueu contuban **jausi orduco** dua gure pensamentuba, uste ez dogun lecura (Icas. II, 79).*

*Ta gueijago guichitu gura nituque, asmau dodan saila, amaitu orduco (Icas. I, IX).*

*Juramentu eguitera orduco beguiratu, dino, ondo: zya gauza ac meraciduten daven edo ez juramentu eguitia? (Icas. I, 126).*

*Inor acordau orduco, ixilic eztena sartu, verenua ezarri ta gaisotu edo ill (Icas. II, 190).*

*Inoc juzgu gaisto bat ceu gaiti eguin davela entzun orduco, vijotcian gorrotuaren suba jaguiten jazu aren contra (Icas. II, 225).*

Adibideotan ikus daitekeenez, batzuetan ... **baino leben** esan nahi du: *inor acodau orduco*; beste batzuetan, berriz, ... - **en une berean**, gaztelaniaz "en cuanto...": *verba bat esan orduco*.

**Aric eta... artian** forma ez du erabiltzen; bai, ostera, honen ordezkoa den **arian da... artian**:

*Ecin acertau even Philisteotarrac Sansonen Itaune illunac cer esan gura euan, **arian da** Sansonen beraren Espostac esan **artian** (Icas. III, 204). // Ta ondo compesau bere ezin leitequeza-la, **arian da** dotrinia icasi, pecatu mortalac ainzat artu, areequin garbatu, ta pecatuco ocasinoe urrecuai isteecco asmo sendua artu **artian** (Euscal-Errijetaco... 183). // **Arian da** compesoriaren ta beraren erichijan guztia ziatz esan **artian** (Icas. III, 162).*

## 2. Ondorio-perpausak

Hauetan, gehienetan, honako egitura hau agertzen da: **ain** ... **ece** (*ce*) + aditza **-n** morfemarik gabe; batzuetan **ain** agertzen da soilik eta aditza; beste batzuetan, **ain** ... **zeinda** ... Azken hauek konparazio-perpausetara hurbiltzen direla dirudi:

Beste batzuc **ain** dira condicinoe latcecuac, estubac, iraacijac eta sicubac, **ece** usle davee olgueeta guztiac diriala chaarrac (*Euscal-Errijetaco...* 16).

Biguireetan eguiten dira gauza batzuc **ain** loijac eta desones-  
tubac, **eze** turcubac eurac bere lotsatuco litzatequez, icusico  
balitubee (*Euscal-Errijetaco...* 111).

Ta **ain** dauqueez ija artubac erdeera edo latin verba batzuc,  
**ece** euraquin ez bada, aituten ez davee ondo dotrinia edo cris-  
tinautzaco eracutsija (*Icas. I, IX*).

Baina ardaua dan leguez, gueure sabelian sartu ezquero, **ain**  
biarguin presta, sutsuba ta indartsuba gorputceco odolac ta ur  
bitzigarrijac erabilteco, verotuteco ta asarratuteco, esaten jaco  
cristinaubari: Ardaua edan biar dala voticacua leguez (*Icas. I,*  
*269*).

Baina **ain** atsituba ta pestetsuba, **ce** eguno ez arrainic, ez gau-  
za viltzirc emon dau (*Icas. II, 46*).

Ez dago inor bere, neure cristinaubac, **ain** zororic, **ain** itsuric  
edo **ain** necijoric, **ceinda**, gauza bat guztiz ona dana jaquin  
ezquero, ameetan ez davenic (*Icas. I, 40*).

Ez dago inor bere hurraren gainian **ain** zucenic, **ceinda** egu-  
nian egunian ascotan uts eguiten ez davenic (*Icas. I, 45*).

### 3. Perpaus kontzetsiboak

Ez dugu aurkitu bereziki aipatzea merezi duen forma bitxi edo ezezagunik. Ia lerroan-lerroan agertzen den egitura hau da: *Partizipioa + arren / partizipioa + ez + arren*. Beti da partizipio hutsa eta ez partizipioa eta aditz laguntzailea. Askotan, kontzetsiboari dagokion objektua nahiz kualitatea **arren** junta-gailuaren eskuinean jarri ohi du; esaterako, *Olgueetia berez izan arren ona*, *izan leiteque chaarra eragotzitaco dempora-*

*an dalaco* (*Euscal-Errijetaco...* 40). Ezezko perpausa denean, goian jarri dugun hurrenkera darabil beti, eta ez: *ez* + *partizipioa* + *arren*. Bizkaieraz, guk dakigula, Bartolomek darabilen forma bera izan da gure betiko euskarakoa; hau da: *izan ez arren* da guk txikitatik entzun eta erabili izan duguna. Bestea orain sartu zaiguna da; *aditz jokatua* + *arren* ere guretzat berria da. Hona Frai Bartolomereren hurrenkera eta egitura:

*asco izan arren ceruraco deitubac, guichi izango diriala ceruracuac* (*Euscal-Errijetaco...* 150).

*Adisquide pobriac intencinoia ta desiua euqui arren mesede eguiteco, gauza andiric ezin leiyo inori, cegaz ez daucalaco* (Esk. 67).

*Ta deungaac izan arren gurasuac, gurasuac dira* (*Icas. I, 206*).

*Bada zuc oneraric euqui ez arren lapurreta atati, pagau biar dozu, lapurraren paltan, ac ostuba* (*Icas. II, 154*).

Beste batzuetan *ba* + *aditza* (*jokatua nabiz -ta/-da amaitutako partizipioa*) + *bere* erabiltzen du:

*Oitu beti eguija esatera, ceuben contra bada bere* (*Icas. II, 181*). *Preminan icusi ezquero adisquidia, inoc esan bagaric dua lagundutera, asco costata bada bere* (*Icas. II, 207*).

*Guztiac bat eguinda bere, ezin conjurau leguije endemoniandu bat* (*Icas. III, 294*).

Beste batzuetan, partikula distributiboak erabiliz adierazten ditu perpaus kontzetsiboak:

*Nai ona izan, nai pecatarija izan Sacerdotia, nai Jaungoicuaaren adisquidia izan, nai aredijua izan, nai sinistute onecua izan, nai Eregia izan, dana dala, dan moducua dala, mezaz ordenauba bada, [...]* (*Icas. III, 295*).



## 8. Perpaus erlatiboak

Bere garaiko idazleen artean, ezbairik gabe, Frai Bartolome izango da molderik oneneko joskera ageri duena eta hizkuntza erromanikoen kutsuko esaldirik gutxien darabilena. Horri dagokionez, J.A. Mogel eta gainerako klasikoak baino jatorrago dabil herri-euskararen bidetik. Perpaus erlatiboetan, hala ere, euskaraz ohikoak direnekin batera, **cein**, **nun** eta antzekoekin eraikitakoak aurkitzen ditugu haren testuetan. Beraz, ohiko formatara joko du normalki perpaus erlatiboak egiteko, baina erara datorkionean beste moldekoak egiteko ere ez du engaririk. Hona azken hauetariko adibide batzuk:

*Erregue guztien Erreguia ta Jaun guztien Jauna da bere Aita, **cein dan** Aita Beticua (Icas. I, 72).*

*Mundubaren beguijetan palta andi aguiricoric euqui ez arren, vorondatiaren nai ona edo caridade santia ez euqueelaco, **cein dan** arimiaren lamparia exioteco orijua (Icas. I, 95).*

*Ta onen ondoric gueure arimaco gracia ta Ceruco betico dichu andija, **cein opa deutsudan** guztioi: Aitiaren, Semiaren, ta Espiritu Santubaren Icenian. AMEN (Icas. I, 30 serm.).*

*Luxurijotsubac bai guizonac ta hai emacumiac, bai ezcondu-bac ta bai libriac euren pecatuco adisquidequin sartuten ditubela oe ixiiuetan, laba gorijetan ta galdara iraaquinetan, **nun egon biarco daveen** condenau loijac demoninuen burlagarritzat, alcar zatituten ta alcar erretan (Icas. II, 40).*

*Leenagoco guiza aldijac saltoca iraguaz, gogoratuco ditut batzuc, **nundi ezautuco dozun** pecatu loijaren erru madaricatura (Icas. II, 44).*

*Leengo leguian aguindu evan Jaungoicuac, Caxa bat eguiteco, **nun gorde biar zan** Israelarren Mana, Jesus Comuninoecuarren irudija (Icas. III, 209).*

Luis Baraiazarra